


guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2020-03-27 OSTIRALA / 723. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



GUZTION ARTEAN,
AURRERA

Trafiko-kutsadura erdira gutxitu da

Koronabirusak eragindako alarma egoerak ibilgailuen trafikoaren beherakada ekarri du eta, ondorioz, airearen kutsadura erdira gutxitu da. Ekologistek administrazioei eskatu diete salbuespenezko egoeraren ondorio batzuk azter ditzaten, kutsadura kasu

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Airearen kalitatearen kontrole-rako estazio sarea du Nafarroako Gobernuak. Haietako bat Altsasun dago, Aminanespila kalean, Zelandi eskola publikoaren itxituraren barruan, kirol-degi ondoan. Estazio horrek orduro zazpi parametro neurtzen ditu airearen kalitatea zein den jakiteko. Horietako bat nitrogeno dioxidoa (NO₂) da. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) eta Europar Batasunak (EB) nitrogeno dioxidoari ezarritako muga % 40koa da. Alarma egoera hasi aurretik, martxoaren 10ean, Altsasuko estazioak metro kubikoko 24 mikro-gramo zenbatu zituen. Igandean, berriz, 11.

Greenpeaceko Mugikortasun kanpainako arduradun Adrian Fernandez Carrascok azaldu digunez, "lehenik eta behin, garrantzitsua da kontuan hartzea substantzia kutsatzaile guztiak ez datozela iturri beretatik. Guk gure analisia nitrogeno dioxidoan (NO₂) zentratu dugu, funtsean diesel eta gasolina erretzetik datorren substantzia delako". Aipatu bi data horien arteko Altsasuko estazioko datuei erreparatu dio Fernandezek eta esan digunez, "NO₂ eta nitrogenoaren beste konposatu batzuk, monoxidoa (NO), edo oxido multzoa (NO_x) nabarmen murriztu direla bi astean artean, beste hiri batzuetan gertatu denaren ildotik. Meteorologiak ere mailak "garbitzen" lagundu zuen joan den astearen hasieran".

Altsasuko airearen kalitatea neurtzeko estazioak neurtzen dituen beste sustantziatan ez da



Iparaldeko Autobia (A-1) ia hutsik Altsasu parean.

halako beherakadarik ikusten. Fernandezek eman digu azalpena: "haien jatorria ez baitago trafikoari hain lotuta, sufre oxidoa (Sox) ikatzak eta itsas erregaiek sortzen dute gehien bat". Greenpeaceko kideak gaineratu duenez, "partikula mikroskopikoak (PM10) hainbat errekontzaturritatik datoz. Eta naturalak ere izan daitezke, esaterako, Saharako hautsa". Horrekin batera, Fernandezek azaldu digu ozonoa ez dela "zuzenean sortzen, baizik eta eguzki-izpiekiko erreazioetatik".

Trafikoa

Ibilgailuen joan-etorria murriztu da. Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak emandako datuen arabera, martxoaren 9tik 16ra trafikoa murriztu egin da. Leitzarango Autobian (A-15), Areson, 11.705 ibilgailutik 6.433ra pasa

ziren, 5.272 ibilgailu gutxiago eta % 45,04ko jaitsiera. Iparaldeko Autobian (A-1), berriz, Ziordian 21.663 ibilgailu zenbatzetik 14.266ra pasa ziren, 7.397 gutxiago, % 34,14ko jaitsiera. Arbizun, Sakanako Autobian (A-10) 16.665etik 8.832ra pasa da, 7.833 ibilgailu eta % 47 gutxiago.

Greenpeacearen irakurketa

Fernandezen arabera, "ezohiko egoerak ikaskuntza gisa balio dezakete airearen kalitate txarrak urtero eragiten dituen milaka heriotzak murrizteko. Argi baitago trafikorik gabeko egun batzuk nahikoa direla atmosfera garbitzeko". Horregatik, "pertsonek osasuna arriskuan jartzen bada, neurri sendoak hartzeko ez genuke zalantzarik izan behar". Administrazioei eskatu die ondoren ondorioak azter ditzatela.



Arakildarrak San Isidro egunez Itxasperi ermitan elkartzen dira. ARTXIBOA

Elkartasun Sarea sortu dute udalak eta kontzejuek

Astegunetan, 10:00etatik 15:00etara, 948 500 101 telefonora hots egin behar da, bestela, 622 297 961ra

ARAKIL

Arakil ibarra 12 herrik osatzen dute. Haietan 933 arakildar bizi dira. Eta COVID-19 gaitzak eragindako alarma egoeraren eragina ere ibarrera iritsi da. Eta ondorioei aurre egiteko Elkartasun Sarea sortu dute. Irantzu Eskudero Arakilgo Udaleko zinegotziak argitu digunez, "oinarrizko beharrei erantzuteko sarea da: erosketak egiteko, botikak erostera joateko, hondakinak ateratzeko..." Bestetik, bakarrik bizi diren pertsonen zerrenda egin dute. "Boluntarioen egitekoetako bat izanen da pertsona horiei hots egitea, "zer moduz dauden galdetzeko, ikusteko zein behar duten eta, bakardadea pixka bat arintzeko".

Arakilgo Udaleko zinegotziak azaldu digunez, udal taldean sortu zen Elkartasun Sarea eratzeko ideia. "Hau guztia sortu zenean aurreneko pausoa kontzejuetako ordezkariekin hitz egitea izan zen, egoera zein zen eta zein behar zeuden jakiteko". Eskudero azaldu duenez, hasiera batean ez zuten beharra ikusten halako sare bat sortzeko, "momentuz". Baina aurreko asteburuan laguntza sarearen ko-

menigarritasunaz aritu ziren eta aurrera egin zuten. Arakilgo Udala ibarreko kontzejuekin harremanetan jarri eta bina boluntario eskatu zizkien. "Erantzuna oso-oso ona izan da. Herri guztiak erantzun dute, denetan atera dira boluntarioak, bi baino gehiago".

Zabalkundea

Udalak Elkartasun Sarearen berri herri guztietan jarri diren bandoen bidez eman du. Baina horretaz aparte, "herri guztiak beraien whatsapp taldea dute eta hori erabili dugu. Baina kontzejuetakoei eskatu diegu whatsappk ez duten pertsonak ere kontuan hartzeko eta horrela herritar guztien artean zabaltzeko". Eskaera batzuk jaso ditu dagoeneko Arakilgo Elkartasun Sareak. Haietako bat Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik bideratutakoa izan zen. Beste kasuetan, arakildarrek zuzenean udaletxera deituta jaso dute eskaeren berri. Eskudero azaldu duenez, "jendea oso eskertuta dago. Halakoek jendearen elkartasuna areagotzen dute. Ikusten ari gara jendea laguntzeko prest dagoela".



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Eneida C. M. eta Alfredo A. I.

ALTSASU

Zein da zure egunerokoa?

Txanda hasteko gainazala eta material guztiak desinfektatu eta zerbitzua prestatu, datozen larrialdietarako. Hori egiten dugu txanda bakoitzean, hiru aldiz egunean.

COVID-19 Txinan agertu zenean, zer pentsatu zenuen?

Hasieran oso urrun ikusten genuen, baina konturatu gabe eta azkar heldu zen. Orain Txinara begiratzen dugu eredu moduan.

Hona iritsiko zela eta nola prestatu zineten ospitalean?

Egia esateko, egunero moldatzen gara, egoera aldatzen den neurrian, orduero, egunero... beti hobetzen saiatzen.

Gasteizen kutsatuak asko izan dira, nola bizi izan duzu guztia?

Zoritxarrez, Hego Euskal Herriko probintzia kutsatuena izan gara, milaka lagun. Orain Bizkaia. Eta horrek behartu gaitu aldatzeko eta hobetzeko dinamika batean sartzea. Alde txarrean, lana kopurua izugarri handitu egin da, eta kalitateari dagokionez, asistentzia ez da guk nahi genukeena, edo guk ematen genuen bezalakoa. Beste aldetik, alde on bat ateratzearen, ospitalean lan egiten duten profesional guztiak batu egin gara, profesional eta pertsonalki, egoera hau aurrera eramateko.

Hasierako egoera nolakoa izan zen?

Hasieran pitteka-pitteka etortzen ziren, eta etortzen zirenak ez ziren hain larriak, baina aste bat pasa eta gero, egoera guztiz aldatu da, orain eguneko ia paziente guztiak "kobiak" dira, beste patologia izugarri gutxitu dira, batzuk desagerrarazi arte. Ospitalea berrantolatatu behar izan da eta lankideek prestakuntza espezifikoa hartu.

Gaur egun eta daukazuen esperientziarekin zer duzu esateko?

Hartu ditugun isolamendu neurriak, oso inportanteak direla, batez ere osasun zerbitzua ez kolapsatzeko eta jasoko ditugun gaixoei asistentzia emateko. Oso zaila da ugaritasun hain handiarekin eta denbora gutxian lan egitea, osasun taldeak berrantolatzen ari dira jarraian. Benetan, isolamenduko neurriak garrantzizkoak dira.

Lan materialez zer duzu esateko?

Zorionez materiala daukagu, momentu batzuetan gutxitzen da eta kolapsatzeko zorian gaude, baina egoeraz salbatuz goaz.

"Isolamenduko neurriak garrantzizkoak dira"

RAKEL GALAN MORCILLO LARRIALDIETAKO ERIZAINA TXAGORRITXU OSPITALEAN

Osasun sisteman lanean ari direnen aldeko txaloak entzuten dira egunero 20:00etan. Osasungintzako langile batekin aritu gara haren egitekoaz, eta etorkizunaz



Rakel Galan Morcillo Gasteizko Txagorritxu Ospitaleko larrialdietan. UTZITAKOA

Profesionalek ez kutsatzeko neurri nahiko hartu dituzue?

Bai, ospitalera sartzen garenetik etxera heldu arte, behar ditugun neurriak hartzen ditugu, lan-segurtasuna garrantzizkoa da. Osasun profesionalak babesten bagara, jende guztia babesten dugu.

Nolakoa da zure lan egun bat COVID-19arekin.

Beste edozein patologia batekin bezala, bere berezitasunarekin. Pazienteak ospitalera sartzen dira larrialdietako atetik, "kobiden" protokoloa jarraitzen da eta babesteko neurri guztiak hartzen, behar duten guztia egiten diegu, X izpiak, odol analisia, nasofaringeko frotisa (kobiden proba)... eta diagnostikatzen ditugunean, ingresatzen ditugu.

Hemendik aurrera zertan aldatuko da zure lana?

Bi edo hiru hilabete hauetan "kobia" izanen da patologia ugariena, eta horiek desageritzen diren heinean beste patologia bueltatuko dira, eta normaltasunera bueltatuko gara, gure larrialdietako normaltasunera.

"JAKITUN IZAN BEHAR DUGU PUBLIZITATEAK ETA OSASUN-ZERBITZUAREN UNIBERTSALTASUNAK DUTEN GARRANTZIAZ"

Gizarteak ikasiko du honetatik?

Espero dut baietz, uste dut oso jakitun izan behar dugula publizitateak eta osasun-zerbitzuaren unibertsaltasunak duten garrantzia. Eta, batez ere, gizarte honetan arlo publikoak edukitzea, adibidez, oso ongo legoke farmazia publikoa gure osasun zerbitzuan oso ondo legoke. Baina gizarte honetan laster ahazten zaizkigu bizitzan oinarrizkoak eta funtsezkoak diren gauzak, eta itzuliko gara hain desberdina den ongizate-gizarte honen ohituretara. **Nola hartu zenuten Bizkaiko erizainaren heriotza?**

Kolpe handia izan zen, koronabirusagatik hildako osasungintzako lehen langilea. Une gogor eta latz hauetan, gure arriskuez eta zaurgarritasunaz konturatzen gara.

Lanetik nola ateratzen zara? Des-konektatzeko aukera izan duzu etxean?

Nekatuta, lur jota askotan, batzuetan pozik egin dugun lanagatik, beste batzuetan triste egoeraren ezintasunagatik. Baina beti saiatzen gara deskonektatzen, isolamenduak ematen dizkigun gauzak txikiez gozatuz. **Gobernuek zuen lana gehiago balaratuko dutela uste duzu?** Ez dut uste, hau bukatzen denean, ia seguru gure lanaren garrantzia ahaztuko da, edo normaltasunera bueltatuko da. Baina ez soilik osasun arloan, baizik eta oinarrizko arlo guztietan, krisi momentuetan oinarrizko beharrak garrantzia handia hartzen dute, baina hau pasa eta gero, galtzen da.

Bukatzeo...

Herritarrei eskerrak ematea gure aintzatespenagatik, arriskuarekiko dugun jarrera garrantzitsuegatik. Baina ez ditzagun ahaztu lehen, bigarren eta hirugarren mailako gainerako zerbitzuak, eta modu eskuzabalean aritzen diren pertsona guztiak. Mila esker, pazientzia eta animo, lortuko dugu.





Josefina Arregi Klinikako langileak Sakanan egindako aurpegi-babesgarriekin. UTZITAKOIA

Made in Sakana babesgarriak

Koronabirusaren kontrako borrokan, 3D teknologiako inpresorak dituzten maker, enpresa eta entitate sakandarrak aurpegi-babesgarriak egiten ari dira. Sakanako Garapen agentziak koordinatzen du prozesu guztia

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Koronabirusaren kontrako borrokan guztia da ongi-etorria eta makerrek –teknologia berriekin, bereziki 3D inprimagailuekin edo robotikarekin euren proiektuak egiten dituztenak– sekulako auzolana bultzatu dute: osasun arloan ari direnendako aurpegi-babesgarriak edo pantailak egitea.

Nafarroan COVID-19 FAB Nafarroa laguntza taldea sortu zuten makerrek (400 maker inguru dira), eta hainbat sakandarrek egin zuten bat ekimenarekin. "Azkenean, atzerrian gertatu den gauza bera gertatu da hemen. Makerren artean ohituta daude beraien artean sarean lan egiten, auzolanean, eta gurera koronabirusaren arazoa iritsi bezain pronto, beraien kabuz lanean jarri ziren. Sare bat

sortu zen Nafarroan, eta hobeto antolatzeko, Nafarroa gune ezberdinetan antolatzen hasi ginen. Eremu horietako bat Sakana da, baina ez da soilik Sakanara mugatzen, Ziorditik eta Beteluraino luzatu dugu eremua, logistika arrazoiengatik, koordinazioa errazten zuelako. Eta horrela hasi ginen. Telegram talde bat sortu dugu, maker guztiak eta proiektuan parte hartzen ari garen entitate eta enpresa guztiak koordinatzeko eta horretan gabilta, batetik produkzioa egiten eta

22 MAKER, DINABIDE, LANBIDE HEZIKETA ETA BI ENPRESA ARI DIRA BABESGARRIAK EGITEN

bestetik logistika koordinatzen" aipatu digu Sakana Garapen Agentziako proiektu arduraduna den Zuhaitz Areitio Rementeriak.

Sakanako Garapen Agentziak koordinatzen du proiektua ibarrean

Sakanako Garapen Agentzia da proiektua Sakanan koordinatzen ari dena. Sakanako Garapen Agentziak Dinabide Eraldaketa Digitalerako Gunea kudeatzen du Irurtzunen, eta 3D inpresorak ditu bertan, 10 inpresora profesional eta produkzio handiko 3D inpresora. "3D inpresorak genituen, COVID-19 FAB Nafarroa laguntza taldean sartu ginen. Dinabiden aurpegi-babesgarrien produkzioa egiteaz gain, Sakanako Garapen Agentzia garen aldetik, administrazioekin eta erakunde ezberdinekin harre-

mana dugunez, Sakanako Osasun Etxeetan, udaletxeetan, kliniketan, zaharretxeetan eta udaletan dauden beharrak identifikatzen hasi gara. Beraiek aipatzen digute zein behar dituzten, eta gu egiten ari garena da produkzioa eta beharrak lotzeko bidelan hori. Sakanako Garapen Agentziak Dinabide gunea kudeatzen duenez, horrexegatik hartu dugu Sakanako koordinazioa. Gu gara momentu honetan Sakanan gaitasun gehiena duguna produkzio aldetik eta koordinazio aldetik; batetik Dinabide kudeatzen gabilta eta bestalde maker edo bolondres hauek koordinatzen" gaineratu du Areitio.

Aurpegi-babesgarri hobek

Sakanan egiten ari diren aurpegi-babesgarriak homologatuak dira, Osasunbidearekin koordinatuta sortutakoak, elkarlana erabatekoa baita. "3D inpresorekin piezak egiteko prozesua oso simplea da. Inprimatu beharrekoa gure artean elkarbanatzen dugun dokumentu bat da, artxibo bat, hura kopiatzen da, eta inpresorak martxan jartzen dira" dio Areitio. Inpresoretan egiten dena aurpegi-babesgarriko egitura edo txasisa da. Bisera, eta ondoren aurretik azetatoa edo babesgarria jartzen zaio eta goma, babesgarria burura eusteko.

Aurpegi-babesgarri hauek orain arte mediku eta erizainek erabiltzen zituzten betaurreko antzeko horiek baino gehiago babesten dute, eta ez diete aurpegiaren markarik egiten. "Errezagoak dira erabiltzeko, segurtasunaren aldetik ditugun beharrak betetzen dituzte eta ez dituzte azalean markak egiten. Eboluzio bat da. Beste herrietan izan dituzten arazoak ikusita, diseinua hobetzen joan dira. Ildo honetan, makerren batek zerbait hobea asmatzen badu, berehala guztion artean elkarbanatzen du eta guztiok produktu berria egiten hasten gara, osasun teknikarien onespina jaso eta gero. Hori da aipagarriena, zenbat jende dagoen honen atzean, zelako elkartasuna dagoen eta atzean dagoen auzolan guztia" aitortu du Sakanako Garapen Agentziako proiektu arduradunak.

Nahiz eta makerrak bere kabuz aurretik lanean egon, Sakanako Garapen Agentzia aurreko asteburuan hasi zen guztia koordinatzen. "Gure artean ere jendea gaixorik egon da eta kosta izan

zaigu hau guztia antolatzea, eta azkenean asteburuan hasi ginen lanean: inpresorak martxan jartzen, zein aukera genituen ikusten, prototipo batzuk egiten... Eta baita koordinazio lanekin, maker eta boluntarioekin, ibarreko udal, Osasun Etxe, adinekoen etxe eta klinikekin harremanetan jartzen. Pentsa zenbat jenderekin hitz egin dudana!" dio Areitio, irribarrez.

Aurpegi-babesgarrien eskari handia dago

Produkzioa inpresoraren arabera da. Etxeko 3D inpresoren kasuan, batzuk egunean 6 pieza egin ditzakete, beste batzuk 10 eta beste batzuk 15. Dinabiden 10 inpresora profesional daude eta produkzio handiko inpresora bat, eta guztiak kontuan hartuta, egunero 100-150 aurpegi-babesgarri egiten dira. "Kopuru dezentea da, baina beharra handia da. Atzo (asteartea) 28 aurpegi-babesgarri entregatu genituen Josefina Arregi Klinikari eta beste 50 behar ditugu, Aita Barandiaran egotzarako ere beste horrenbeste, Sakanako Osasun Etxeetan ere mordo. Lehenik eta behin osasun arloan dabilzan langileak babestu behar ditugu eta hori da preferentzia, baina ezin dugu ahaztu badagoela jendaurrean lan egiten duen profesional asko, farmazietako langileak, esaterako, eta langile hauek ere babestu nahi ditugu. Eskaria handia da" azpimarratu du Areitio.

Beste produktu batzuk, maskarak edo harnasgailuak egingo ote diren, oraindik ezin da esan. "Osasunbideatik eta osasun erakundeetatik eskatzen digutena ari gara produzitzen. Orain aurpegi-babesgarriak behar dira, eta beste behar batzuk badaude, hasiko gara beste mota bateko produkzioa egiten" gaineratu du Sakanako Garapen Agentziako proiektu arduradunak.

Sakanan 22 maker, 2 enpresa, Dinabide eta Lanbide Heziketa

Sakanako eremuan 22 maker edo pertsona bolondres ari dira modu altruista batean, inongo helburu pertsonalik gabe, beraien etxeetan aurpegi-babesgarriak egiten. Ziordia, Altsasu, Urdiain, Etxarri Aranatz, Arbizu, Lakuntza, Uhartte Arakil, Irurtzun eta Betelukoak dira. Horretaz gain, Dinabide Eraldaketa Digitalerako Gunean, Irurtzunen, egiten dira aurpegi-babesgarriak eta baita Altsasuko Lanbide Heziketa Institutuan ere.



Aita Barandiaran adinduen egoitzako kudeatzailea babesgarriak jasotzen. UTZITAKOIA



Etxarri Aranazko Osasun Etxeko langile bat babesgarriekin. UTZITAKOIA

Momentuz Sakanako bi enpresa gehitu dira ekimenera, Urdiaingo Magotteaux eta Lakuntzako Lamapor.

Sakanan 3D teknologia erabiltzen duen enpresa askorik ez dago. "Hain zuzen ere horregatik sortu genuen Irurtzango Dinabide Eraldaketa Digitalerako Gunea. Ikusi genuen Sakanan gai hau lantzeko beharra zegoela, Sakanan ez dagoelako enpresa askorik teknologia honetan jantzita, eta tresnak dauzkatenak oso gaitasun txikia dute. Pentsatzen dugu honekin guztiarekin jabetuko garela zeinen garrantzitsua den hau, eta honek guztiak eraldaketa digitala azkartuko duela. Eraldaketa digitalak zein gaitasun duen oso agerikoa da, zein den bere erabilera, eta horren arabera ikusiko dugu aurrerant-

IKUSGARRIA DA ZER NOLAKO AUZOLANA SORTU DEN; HARRO EGON GAITEZKE

tzear ere Sakanako enpresetan zein behar ditugun; honek eraldaketa hau egiten ere lagunduko digu" aipatu du Areitiok.

Enpresaren batek edo makerren batek 3D inpresorarik badu eta ekimenera gehitu nahi badu, ateak zabal-zabalik dauzka. "Jar dadila gurekin harremanetan (proiektuak@sakanagaratzen.com) eta plazer bat izango da berarekin lan egitea. Gainontzeko guztia koordinatuko dugu" azaldu du Areitiok.

Udal langileek egiten dute babesgailuen banaketa

Sakanako udal guztiak bere burua eskaini dute proiektu honetan logistika edo banaketa egiteko. "Makerrak ezin dira etxetik atera, ezin dute deus inora eraman, eta Sakanako udal langileak ari dira lan hau egiten. Makerren etxeetatik materiala jaso eta osasun etxe, zaharretxe eta klinike-tara banatzen dute. Pertsona asko daude honen atzean, ikaragarria da zein elkartasun uholdea sortu den honen inguruan" nabarmendu du Zuhaitz Areitiok.

Auzolan erraldoian parte hartzen ari direnei eskerrak

Sakanako Garapen Agentziak hau guztia bideratzeko izan duen ikuspegia eta inizatiba txalotzekoa da, dagoen beharri momentuan erantzuna emateko gaitasuna izan baitu. "Honen atzean ez gaude gu bakarrik, eta aprobeixatu nahi nuke atzean dagoen jende horri guztiari eskerrik beroenak emateko. Makerrak, osasun etxeko jendea, udaletxeko langileak, Lanbide Heziketakoak, gutxika hurbiltzen ari diren enpresak... ikaragarria da zer nolako auzolana sortu den; benetan guztiok harro egoteko moduko ekimena da hau. Hau bukatzen denean zerbait egin beharko dugu guztiak elkarren artean ezagutzeko, aurpegiak jartzeko, orain bakoitza gure etxean gaudelako lanean. Zerbait egin beharko dugu egindakoari daukan garrantzia eta balorea emateko, ikaragarria delako. Guztioi eskerrak, benetan" dio, esker-tuta, Areitiok.

Sortu den sare honekin etorkizunean beste proiektu batzuk sortu ote diren galdetuta, Areitiok argi du. "Zalantzarik ez dut, uste dut sare honek zerbait gehiagorako balio beharko duela. Etorriko dira beste egitasmo batzuk, ziur baietz. Honetatik asko ikasiko dugu, seguru. Uste dut Sakanan, beste behin, txarrenari onena aterako diogula" ondorioztatu du.

"Inpresora hauekin denetatik egin ahal da"

MIKEL ARBELOA SGA-KO AHOLKULARIA

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Dinabide Eraldaketa Digitalerako Guneko 3D inpresorek produkzio-ahalmen handia dute, ezta?

Guk hamar 3D inpresora profesional ditugu eta produkzio handiko inpresora bat. Egun batean 100 aurpegi-babesgarri pasa egin ahal ditugu, nahiko ekipo potentea da. Eta horri makerrek egiten duten produkzioa gehitu behar zaio. Maker gehienak oso gazteak dira, eta hori azpimarratuko nuke, euren prestutasuna. Lanbide Heziketa eta hainbat enpresa ere ekimenera gehitu dira eta guztiak gaude martxan.

Arnasgailuak eta beste produktuak egitea aurreikusten duzue?



Momentu honetan aurpegi-babesgarriak ari gara egiten, osasun zerbitzuetatik eskatu digutena, baina agian hurrengo astean beste produktuak egiten hasi gaituzke, inpresora hauek mila gauza egin baititzakete. Maskarak, arnasgailuak eta beste elementu batzuk 3D-an nola egin ikertzen ari dira. Momentuz, aurpegi-babesgarrien behar handia dago, eta

heldu den egunotan milaka egin beharko dira Nafarroan. COVID-19 FAB Nafarroa laguntza taldean bat egin dutenek bere ahalmena jarri dute lan amankomun boluntario bat egiteko: Nafarroako txoko ezberdinetan banatuta, eskualde bakoitzak behar duenari erantzuna eman nahi zaio. 0 km-ko produkzioa da. Irurtzango Dinabide gune garrantzitsua bilakatu da, Sakanako erreferentea.

Beraz, Sakanan eta Nafarroan aurpegi-babesgarrien ekoizpen gaitasun handia dago 3 Dimentsioko inprimagailuei esker, eta ekoizpen deszentralizatua da, 0 kilometrokoa. Teknologia berri bat koronabirusaren krisiari egokituta.

Bai, hala da. Sakanako Garapen Agentziak izan duen ikuspegia eta inizatiba eskertu beharrekoa da, ezin hobea izan baita, aproposa. Industria ekoizpenerako balio duen tresna batek etekin soziala du.

107.3 FM

BELEIXE IRRATIA

beleixe

irratia@beleixe.eus

661 52 32 45

948 567 074

EGUNERO ETXETIK ENTZUN

EGUN ON SAKANA

"Konfinamendua etxean egin, zergatik ez?"

AMAIA AMILIBIA SALGADO ALTSASUKO GURASOAK TALDEKO KIDEA

Altsasuko auziko presoak Zaballako espetxean daude. COVID-19 gaitza dela eta, kartzelan zein egoera bizi duten eta auzibidea zertan den jakin nahi izan dugu

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Zein egoeratan daude presoak?

Bost gazte kartzelan daude. Aratz eta Iñaki 3. graduak daude. Oker ez banaiz, birusarengatik, ez dira espetxera lo egitera joaten. Halako eskumuturra jarri diete. Etxean konfinatzeko aukera izaten ari dira.

Preso daudenak, elkarrekin daude?

Bai. Bostek zigorraren laurdena beteta dute. Adur, Jokin eta Oihanek hiru urte eta erdi eginen dituzte preso. Tramite guztiak eginda, hirurek Madrilek onartutako baimenak zituzten. Jada hanka bat kanpoan zutela koronabirusa dela eta bertan behera gelditu zaie hiru eguneko irteera. Haiendako gogorra izan da.

Julenek eta Jonanek onartuta dute ateratzeko baimena, baina Madrilek berresteko zain daude. **Koronabirusak jotako gaixorik bada?** Ez digute esan haien moduluan inor dagoenik. Baina kezka handia da. Izan ere, haien moduluko zenbait kide egunero lanera ateratzen dira. Kartzelan hainbat aldaketa izan dira. Esaterako, paketeen joan-etorria moztu dute, eta aurrez aurreko bisitak edota mintzalekukoak bertan behera gelditu dira. Eta ez dute martxan jarri bideo-konferentzia moduko komunikazio biderik. Halako mozketa eta egoera berezi batean hori interesgarria litzateke.

Gainera, azpiegitura egonda. Ez dakit guztiendako adina azpiegitura egonen den, baina, nolabait, astean behineko bideo-konferentzia bat-edo posible izanen balitz gauza ederra litzateke haiendako, familia edo lagunendako. **Harremana mantentzeko modu bakarra kabina batetik, pagatuta, egindako telefono deiak dira, ezta?** Gainera, garesti xamar izaten da. Aurtengo berria izan da lehen bost minutuko deiak zirela eta orain zortzi minutura luzatu dutela. Oker ez banaiz hamar dei dituzte. Eta gero kartak. Baina posta zerbitzuan ere murrizketak



Gurasoetako batzuk Espainiako Auzitegi Nazionalaren parean. ARTXIBOA

"KONTUAN IZAN KARTZELA EZ DAGOELA PREST JENDE ASKO ALDI BEREAN GAIXOTZEKO"

izan dira eta ez dira horren sarri iristen. Baina iristen dira. Jendeak idatzi nahi badie: Centro Penitenciario de Alava. Portillo San Miguel, 1. Carretera N-1, Km. 340. 01230, Nanclares de Oca. Pozik hartuko dute.

Segitzen dute ikasten-eta?

Beraien bizitza ere aldatu da. Garai batean liburutegira eta kiroldegira joaten ziren. Edo bisitetara. Kartzela barruko irteera horiek guztiak moztu egin dituzte eta haien eguneroko bizitza modulu barruan egiten dute. Imajinatzen dut ikasketekin segituko dutela, daukaten denboran, haien ziegan. Bitxikeria bat ere. Zuzendaritzaren helburua da ahalik eta denbora gehien eman dezatela haien ziegetan; ez egoteko jende guztia patioan, jende guztia batera. Nolabait, jendea konfinatzea nahi dute. Eta, horretarako, zer pentsatu

dute? Kartzela barruan dagoen telebista katea martxan jartzea. Zuzendaritzak eskatuta, Jonan eta Julen, egunehin hiru film edo kirola egiteko saio bat edo halako gauzak jartzen dituzte kartzela guztiarendako. Horrekin buru-belarri ibili dira egun batzuetan. Jada, martxa hartu dute.

Badirudi batzuk ostiraleko aldarrikapena balkoietara eramane dutela.

Gurasook ez dugu halako ekimenik bulkatu, baina bai ikusi ditugula, eta eskertzen ditugu jendearen ekarpen horiek. Ez dakit zein saretan esaten zuten asteazkenetan 18:00etan. Eskerririk asko guztiei Altsasuko gazte hauek gogoratzeagatik.

Frantziako Gobernuak 5.000 preso aske utziko ditu. Halakorik eginen duela irudikatzen duzue?

Itzela litzateke. Semeak esan dit inguruko hiruri 3. gradua eman dietela eta ateratzekoak direla. Gure gazte hauek, eta imajinatzen dut beste askok ere, esaterako, zergatik ez konfinamendua etxean egin? Zigorraren laurdena bete dute, beti jarrera ona erakutsi dute egunerokoan, urtetan. Zergatik ez? Gaur egun dauden bitartekoekin, eskumuturrekoa dela eta... ba, etxera etortzea.

Zeren kontuan izan behar dugu kartzela ez dagoela prest jende asko aldi berean gaixotzeko. Oso azpiegitura txikiak dauzka. Eri-zaindegia oso leku txikia da. Medikatu bat eta ez dakit zenbait erizain, baina gutxi. Oheak ere bost gehienera. Halako jende pila dagoen leku batean, azpiegiturarik ez, dena itxita... Hor koronabirusa sartzen bada zoramen izan daiteke. Kontuan izan behar dugu, gainera, bertan dagoen jende asko immunoeskasia duela. Eta bestelako gaitz eta konplikazioak badituztela, hepatitisa dela eta bestea dela. Konfinamendua etxean pasatzea, hiru garren graduak aurreratzea konponbide on bat litzateke. Zertarako itxaron? Eta gazte hauen kasua da nik gehien ezagutzen dudana. Denak ikasten ari dira. Eta denek daukate, edozein gazte bezala, kanpoan ikasketekin segitzeko grina, beharra eta nahi handia. Askok badituzte kanpoan lan eskaintzak. Bada ordua gazte hauek laguntzeko eta zor zaie emateko. Beraien bizitzarekin segitzeko.

Zertan da auzibidea?

Une honetan klasifikazioaren helegitea Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralean dago. Espetxeke bigarren gradua beharrean hirugarren gradua eskatzen duen helegitea da. Zertarako? Kanpoan ikasteko edota lan egiteko. Batzuek lan, besteak ikasi. Esandakoa, gaur egun badaude baliabideak. Hauek nahikoa erakutsi dute jarrera aldetik, finak direla. Baina beste kezketako bat da honek guztiak tramitazioa mantsoetuko duela.

Dagoeneko hiru epaiketa. Hurrengo non?

Espainiako Konstituzio Auzitegia lehenik, nahi eta nahi ez. Konstituzionalean helegite guztiak aurkeztu ditugu, Ainararena barne. Erabakiaren zain gaude, onartuko duten eta gaia aztertuko duten, edo ez duten onartuko eta Europako Giza Eskubideen Auzitegira joanen den.

Abokatuek noizko espero dute baiezeko edo ezezeko hori?

Justizia geldoa da eta zenbait gaietan agian presa gehiago hartzen dute. Komeni denean. Hori ere egiten badakitela erakutsi dute. Konstituzio Epaitegian urte bat izan daiteke, aurkezten denetik epai bat jasotzen den arte. Ez da zientzia zehatza. Ikusiko dugu gehiago den edo gutxiago den.

Eneida Carreño eta Alfredo Alvaro.

ETXARRI ARANATZ

Zein da presoan egoera orain?

Espainian dauzkagu Asier Karrera Arenzana Dueñasen (Palentzia), Luis Mariñelarena Garziandia Curtisen (AS Coruña), Unai Parot Navarro Puerto de Santa Marian (Cadiz) eta Juan Ramon Karasatorre Aldaz Albocasserren (Castellon). Frantziari Oihan Barandalla Goñi eta Jon Gurutz Maiza Artola Lannemenez kartzelan dauzkagu.

Orokorrean denak ongi daude, ez daude ez gaixo ez ezer. Ez dute aldaketa nabarmenik nabaritu. Kendu dizkiete klaseak eta batzuk lanean zeuden-eta. Azkenean, beste moduluetako pertsonekin harremana ekiditeko horrelako ariketak kendu dizkiete. Baina, bestela, nahiko normal.

Kendu dizkietenak banaka ere ezin dituzte egin?

Bertan behera gelditu dira jarduera horiek. Klaseetan irakaslea dute eta kanpotik heldu da. Kanpoko jendearekin ahalik eta harreman gutxienez izaten saiatzen dira. Nabaritu duten bakarra, eta gogorrena da, bisitarik gabe daudela. Aste bat daramate eta, oraingoz, gutxienez, beste hiru egonen dira, alarma egoerak irauten duen bitartean. Baina ez dakigu noiz izanen den hurrengo bisita.

Aurrez aurreko bisitez aparte, mintzalekuetako bisitak ere?

Hori da. Hasierako neurria izan zen mintzalekuetakoak mantentzea eta kristalik gabe diren aurrez aurreko bisitak kendu, kontakturik ez egoteko. Martxoaren 14ko asteburuan mintzalekuko bisitak izan zituzten. Baina alarma egoera ezarri zenetik, gutxienez, ez dago erabat zehaztuta, baina ezin da inor bisitan joan.

Haien kartzelatan birusa sartu da?

Momentuz, ez. Beraien beldur handiena da birusa kartzelan sartzea. Behin sartuz gero oraindik gehiago isolatuko dituzte. Egon beharko dute bakarrik beraien ziegan, atera gabe.

Zer neurri hartu dituzte?

Kartzela barneko baldintzak ez dira egokiak eta ezin dituzte hartu behar diren neurri guztiak hartu. Presoek ez dituzte eskularrurik ez maskararik. Askok jota lixiba lortu dezakete. Baina hori, azkenean, ez da nahikoa. Funtzionario batzuk erabiltzen dute. Jaso ditugu salaketa batzuk batzuetan ez dituztela ez esku-



Xochitl Karasatorre presoek idatzeko dei egiten. UTZITAKOIA

"Birusa kartzelan sartzearen beldur dira"

XOCHITL KARASATORRE ETXERAT-EKO KIDEA

COVID-19 gaitzak gu guztioi bizimodua aldatu digu. Baita kartzelan dauden pertsonena ere. Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kide sakandarren berri jaso dugu

larrurik ez ezer erabiltzen. Birusa sartzen bada, funtzionarioen bitartez izanen da; beraiek dira kanpoan daudenak eta barna sartzen direnak.

Zein kezka duzue Etxeraten?

Kezka handiena 70 urte baino gehiago dauzkaten presoak eta larri gaixo daudenak dira. Larri gaixo dauden 21 preso dauzkagu. Haien artean dago Maiza. Pertsona horiek arrisku taldeen barruan daude. Etxean egon beharko lukete eta ez espetxean, han arriskua oraindik gehiago handitzen delako.

Frantziak 60tik gorako eta gaixo dauden 5.000 preso etxeratzea aztertzen ari da.

Ez dakigu ezer. Uste dugu berri ona dela, horrela jokatu beharko luke Estatu batek. Ez dakigu denekin eginen duen edo segituko duen beti bezala, politikako presioengatik gure presoak alde batera uzten.

Isolamendua bikoiztu egin dela esaten duzue. Zer dago horren atzean?

Presoa kartzelan egoteagatik isolatuta dago. Gehienbat gure presoak, etxeetatik mila kilome-

troetara daudenak. Beraien ingurutik isolatuta daude. Eta, gainera, orain bisitarik gabe. Bestalde, normala den bezala, posta zerbitzuak ere neurriak hartu ditu eta bakarrik eskutitzak banatuko ditu. Eta presoak egunkaririk gabe gelditzen dira. Orain arte Gara eta Berria iristen zitzairen gehien bat. Eta Guaixe, guk sartuta. Orain hilabete bat egunkaririk gabe geldituko dira, Euskal Herriko berririk gabe. Eta bisitarik gabe. Geroz, beraien ingurutik gero eta isolatuago daude. Zeren telebistan-eta Es-

painiako berriak agertzen dira, Euskal Herrikoak ez dituzte izanen.

Telefonoz hitz egiteko aukera badute?

Bai. Espainian orain arte astean zortzi dei zeuzkaten, zortzi minutukoak. Egoera honekin lau gehitu dituzte eta orain astero 12 dauzkate. Eta Frantzian ordutegi baten barruan mugagabeak dira deiak. Egin ditzakete nahi dituztenak eta nahi duten denbora guztia. Honi aurre egiteko egin dutena da presoek 40 euroko txartel batzuk eman, haiek diru gehiago ez gastatzeko eta dei gehiago egin ditzaten. Uste dugu ez dela nahikoa. Bisitarik gabe harremana asko galtzen baitu presoak senideekin eta lagunekin. Etxeratetik aldarrikatzen dugu neurri gehiago hartzea, esate baterako: bideo-deiak eskaintzen dituen zerbitzu bat oso erraza da. Uste dugu komunikazioa bermatzen dela, presoek senideak eta lagunak ikusten dituzte. Telefonoa ez da nahikoa. Eta zortzi minutu, gutxiago. Oso egingarria da eta borondate kontua besterik ez da. **Egoera honetarako Etxeratak proposamena badu...**

Kasik bi aste daramatzagu etxean sartuta eta kalean egotearen falta sumatzen dugu. Imaginatu horrela urtetan egotea, eta, gainera, erosotasunik gabe: Internetik gabe, familiarekin edozein momentutan harremanetan egoteko aukerarik gabe, erosketengatik, hondakinak ateratzeagatik edo bestelakoengatik kalea ateratzeko aukerarik ez izatea... Presoek idatzeko kanpaina egiten ari gara. Haiendako Euskal Herritik jasotzea izanen da. Lagunen berriak jasotzea oso pozgarria izanen da. Eta guretako ere, aspertuta gaudenez, badugu zerbait denbora pasatzeko.

Presoekiko elkartasuna sareratzera

Sarek gaur, 19:00etan, saio berezia zabalduko du sare sozialen bidez.

19:30ean, aldarrikapen argazkiak edo bideoak zabalduko eskatu du

Hileko azken ostiralarekin batera, Sakanako hainbat herritan euskal presoek Euskal Herriratzea eskatzeko kontzentrazioak egiten dira. Indarrean den alarma egoeragatik, gaurkoan halakorik egitea ezinezkoa izanen da. Hala ere, Sarek presoekiko "bisita eta komunikazioen etendura mantentzen den heinean, elkartasunari eta aldarriei lekua" egin nahi die. Horregatik, "Etxetik Etxera" lelopean egitaraua prestatu du gaurko.

Etxeraten eta Sareren mezuak, musikariak, bertso-lariak eta bestek parte hartuko duten ordu erdiko saio bat emanen dute gaur 19:00retan. Bi erakundeek Facebook-eko profilen bidez (www.facebook.com/sareherritarraEH eta <https://www.facebook.com/Etxerat-Elkar-tea-255302801219340/>) saioa zuzenean ikusteko aukera izanen da. Hura despeditu ondoren, 19:30ean, Saretik dei egin dute norberak argazki edo bideo aldarrikatzailea egiteko eta sare sozialetara igotzeko. Hori egiterakoan #EtxeanNahiDitugu eta #NIEtxeanGeratukoNaiz traolak erabiltzeko eskatu du Sarek.



ETXEBIZITZA ETA ERAIKUNTZA GEHIGARRIA

ATZERATUTA

DATA BERRIA: **APIRILAK 9, OSTEGUNA**

la bi aste beranduago

Erresuma Batuan "oso british"-ak izan dira koronabirusaren egoera kudeatzeko moduan ere, Alazne Alvaro Igoa eta Maria Beltza Igoa Ingalaterran bizi diren etxarriarrek azaldu duten moduan. Astelehenean itxialdia ezarri zuten

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Boris Johnson Erresuma Batuko lehen ministroak hitzak eta hizkuntza asko neurtu duela azaldu du Maria Beltza Igoak. Astelehenean ezarri zuten itxialdia, eta orduan ere ez zuten konfinamendu hitza erabili. Aurretik eskuak garbitzeko eta kalera ez ateratzeko "gomendioak" eman zituen, "nahikoak" ez ziren neurriak, Alazne Alvaro Igoarendako. Bi etxarriarrek Ingalaterran bizi dira, Beltza Corvy 60.000 biztanleko ipar-ekialdeko herri batean, eta Alvaro Londres iparraldeko auzo batean. Etxetik jasotzen zuten informazioagatik, aurretik neurri zorrotzagoak hartzen hasi ziren. Bere ingurukoek ez bezala.

Alazne Alvaro Igoa Londresen bizi da duela 15 urte eta bi haur ditu. Astelehenetik etxean izan ditu, izan ere, aurreko ostiralean ikastetxeak ixtea erabaki zuten. "Oso ongi azaldu diete zer gertatzen den eta eskuak garbitu behar dituztela". Online edo Internet bidez ikasten ari dira orain, eta gurasoen Whatsapp talde batean ariketak elkarbanatzen ari direla dio Alvarok. "Egunero ariketa batzuk egiten saiatuko naiz, eskulanak, hizkuntzak lantzen, eta soinketa ere egiten ari gara goizetan; irakasle batek ordu erdiko saioak egiten ditu Internet bidez".

Irakaskuntzaren beste aldetik bizitzen ari da Maria Beltza Igoa egoera. Corvy hirian irakaslea da. Aurreko ikasturtean iritsi zen Corvyra klaseak ematera. "Dagoeneko ari ginen Online bidezko irakaskuntza egiteko prestatzen. Alde horretatik nahiko ongi, kontuan izanda guretako ere berria dela Internet bidez klaseak ematea". Erresuma Batuan selektibitatea bertan behera utzi dute, baita DBH 4. mailan egiten duten selektibitate antze-



Alazne Alvaro Igoa Londresen bizi den etxarriarra koronabirusaren egoeraz. UTZITAKOA

"HASIERAN EKONOMIA GIZAKIEN AURRETIK JARTZEN ARI ZIRELA ZIRUDIEN"

ko bat ere. Maiatzean egitekoa zen, eta data iristear dagoenez bertan behera uztea erabaki dute.

Erresuma Batuan hasieran ez zituzten koronabirusaren aurkako neurri "oso zorrotzak" jarri. "Gomendioak" edo "proposamenak" ziren. Etxean gelditzea eta ateratzekotan "distantzia soziala" man-

tetzeko, eta eskuak maiztasunez garbitzeko eskatzen zuten. Aurreko ostiralean, martxoaren 20an, ikastetxeak, jatetxeak, tabernak, kultur aretoak eta beste ixtea erabaki zuten. Asteburuan, "aspaldiko partez", eguraldi ona egin zuen eta Londreseko parkeak eta Eskoziako eta Ingalaterrako mendiak bete ziren. Gomendioei kasurik ez zirela egin azaldu dute Ingalaterra bizi diren bi etxarriarrek.

Egoera "oso gaizki kudeatzen" ari zirela uste du Alvarok. "Hasieran ekonomia gizakien aurretik jartzen ari zirela zirudien. Gomendioak eman zituen eta 70 urtetik gorakoak oporretara ez joateko eskatu zuen". Beraz, gobernuak hartutako neurri horien aurrean, britaniarren artean "guregana ez da etorriko" sentazioa zegoen. "Jendeari kostatu zaio benetan ulertzea zer egin zitekeen eta zer ez", azaldu du Beltzak. Lan egiten duen ikastetxean ere noiz itxiko zuten "nolabaiteko apustuak" egin zituzten: "Guk esaten genuen aurreko astean itxiko zituztela, eta hemengoek esaten zuten ezetz. Aste Santuko oporrak arte iraungo zutela eta gero itxiko zituztela". Hemen gertatu zenarekin alderatzen du.

Konfinamendua

Gobernuak emandako gomendioek emaitzak ez zituztela ematen ikusita, astelehenean, martxoaren 23an, hiru asteko itxialdia ezarri zuten. "Poliki-poliki" egoera berrira egokitzeko aukera izan dute. "Espainiar Estatuan gertatutakoa gertaturik, ikusten genuen hemen ere antzeko neurriak hartuko zituztela". Beltzak bi aldiz bizi izan du koronabirusaren krisiaren hasiera, izan ere, Nafarroako Gobernuak ikastetxeak ixtea erabaki zuenean Etxarri Aranzten zegoen oporretan. "Kuriosoa izan da ikustea han gertatutakoa gero hemen gertatzea. Itzuli nintzenez duela bi aste han egoera nahiko tentsoa zen dagoeneko, jendea kezkatuta zegoen eta egoeraren larritasunaz konturatzen hasia zen, baina Londresera iritsi nintzenez harrituta gelditu nintzen jendea lasai zegoelako". Aurreko astelehenean eskolara iritsi zenean oraindik birusaren inguruko "txantxak" egiten zituztela esan du Beltzak: "Ez ziren konturatzen zer zetorkigun. Nik ikusita neukan".

Gauzak beti desberdin egiten dituzte Erresuma Batuan. Kultu-

GUAIXE
ASTEKARIA

ASTE
ETXE
JASOT
EGIN ZAITEZ BA



guaixe
admin@guaixe.eus
948 564 275

RO
AN
ZEKO
AZKIDE



rala dela azaldu du Beltzak. Hortaz, Johnsonek azken egunetan izan zuen jarrera ikusita, Alvarok ez zituen neurri zorrotzagoak aurreikusten. "Pozik eta ados nago. Baina neurri hauek joan zen astetik har zitezkeela pentsatzen dut". Erosketak egiteko, medikurengana edo lanera joateko ez ezik, egunean behin kirola egitera edo paseatzera kalera ateratzeko aukera eman du Britainia Handiko Gobernuak. Beltzak esan bezala, "ez gaitu sorpresaz harrapatu". Bi aste berandago dena bizitzen ari dira.

Alvaro eta Beltza Espainiako Estatuan koronabirusak sortutako krisiaren lehenengo mailako informazioa dute. Hortaz, aurretik ere neurri zorrotzagoak hartzen saiatu ziren. Beltza: "Nik jarraitzen nituen. Hango egoerak harrapatu ninduen eta etxekoekin hitz egitean ikusten duzu zein garrantzitsua den etxean gelditzea". Alvarok azaldu duenez, dagoeneko kaletik jende gutxiago ikusten zuen. "Ea egoera lasaitzen den". Hala ere, Londresen ez ezik, gainontzeko hirietan jendea "gomendioak" betetzen ari zela uste du etxarriarrak.

Kultura liberal demokrata

"Hasieran bazirudien ez zihoala haiekin. Gu oso british gara, nahi duguna egiten dugu". Gobernuaren aldetik "ekonomia zaindu" nahi zutelaren sentsazioa izan zuen Alvarok. "Kritika asko egon ziren hasieran bazirudielako berdin zitzaizela pentsiodunak hiltzea. Negozioak salbatu nahi zituzten, eta berdin zitzaizen jendea hiltzen bazen ere". Are gehiago, Alvarok azaldu duenez, hasiera batean populazioaren % 60 kutsatzea nahi zutela esan zuten, "inmunitatea sortzeko". Munduko Osasun Erakundeak ere jarrera hori kritikatu zuen.

Astelehenean, konfinamendua ezarriko zutela adierazi aurretik, 1000 pertsona inguru zeuden koronabirusarekin gaixo eta 335 hil egin ziren. "Nahiko zenbaki potoloak ziren neurri zorrotzagoak hartzeko", esan du Alvarok. Hala ere, Beltzak azaldu duenez, britaniarren izaera berezi horrengatik ez zituzten hasieratik Italian edo Espainian hartutako neurriak hartu: "Hemen kulturalki ezin dira gauzak agindu moduan. Dena da hau egitea gomendatzen dizugu, nahiz eta jakin horrela egin behar duzula". Baina gomendioak ez dira nahi-



Maria Beltza Igoa Corvyn bizi den etxarriarra Erresuma Batuko egoeraz. UTZITAKOIA

"KURIOSOA IZAN DA HAN GERTATUTAKOA GERO HEMEN GERTATU DELA IKUSTEA"

koa izan, eta astelehenean "garbi" esan behar izan zuten itxialdia egin behar zutela, "eta betetzen ez badira isunak jartzen hasiko direla". Prentsan dagoeneko konfinamendua hitza erabiltzen duten arren, lehen ministroak hitza ez zuela aipatu esan du Beltzak.

"Interneten atera zitzaizkidan lehenengo albistea Espainiako ospitale bat izan zen jendea lurrean etzanda itxoiten eta 2000 hildako baino gehiago zeudela". Albistegietan eta prentsan hemen hartutako "neurri zorrotzak ondo iruditzen" zitzaizkiela esaten zuten. Benidormen britaniarrek

konfinamendua hausten eta hondartzara joatean ere erakutsi zutela esan du Alvarok. Izan ere, Beltzak azaldu duenez, hedabideek Italiaren egoera gehiago jarraitzen dutela esan du Beltzak, eta Espainiako egoerari buruz hitz egiten dutenean Espainian bizi diren edota oporretan dauden britaniarrei hitz egiten dutela azaldu du. "Erresuma Batuko jende asko bizi da Espainian eta oporretan ere jende asko zegoen. Orduan, Espainian jende asko geratua zela esaten zuten hegaldiak bertan behera utzi zituztelako eta itzultzeko arazoak zituztelako". Aste honetako albistegietan ere Espainiarekiko ematen duten ikuspegia aldatzen ari dela esan du: "Espainiako egoeraren antzekotasun gehiago hartzen ari denez, albisteetan gertatzen ari dena aipatzen dute: egoera, zenbat hildako dauden...".

Espainiako kaleetatik armada eta polizia jartzen ari den isunen irudiak Erresuma Batuko albiste-

gietara iritsi dira. "Neurri horiek hasiera batean jendeak uste zuen ez zirela hemen hartuko. Beraien ikuspegia da muturreko erabaki bat dela. Haien tradizio liberal demokratagatik edo neurri horiek ezinezkoak zirela uste zuten". Baina azkenean neurri horiek hartu behar izan dituzte, betiere "hizkuntza oso zaindu bat" erabiliz.

Urrunean gertu

"Kezkarekin" bizitzen ari da Beltza hemengo egoera. "Nire familia eta lagunak ongi egongo ote diren kezkarekin". "Zorionez" telefonoz eta Internet bidez komunikatzeko aukera dagoela esan du. "Zentzu horretan" abantaila dutela esan du. Iritzi berekoa da Alvaro: "Gaur egun Whatsapp, Internet eta guzti horiekin komunikatzea oso erraza da. Amarekin egunero hitz egiten dut eta mezuak bidaltzen dizkiogu elkarri, bideoak... ez dago batere gaizki". Etxean bezala sentitzen dira bi etxarriarrak. "Azkenean, etxetik ateratzen ez bazara hori da komunikatzeko modu bakarra".

Alvaro udan Etxarri Aranatzera etorri ohi da. "Aurreko astean albistegietan entzun nuen konpainia asko ari zirela Espainiako hegaldiak bertan behera uzten eta larritu nintzen. Esan nahi du aurten ezingo garela joan?". Hala ere, udarako egoera lasaitzea eta etortzeko aukera izatea espero du. "Etxekoak aurreko hilabetean ikusi nituen eta uztailean arte aguantatzea espero dut".

Maiatzean bi asteko oporraldia izan behar zuen Beltzak, eta Etxarri Aranatzera etortzea pentsatuta zeukan. "Momentu honetan ez dakit". Gainera, selektibitatea bertan behera utzi dutenez egoera horretan dauden ikasleak nola baloratuko dituzten azaldu behar dute, eta "pixka bat argitu arte" erne egon behar dela esan du. "Momentuz egunez egun eta astezaste".

Momentuz, hiru asteko konfinamendua ezarri dute Erresuma Batuan. "Baina, auskalo". Gaixotuak eta hildakoen "gailurra" delakoaren arabera izango dela uste du Beltzak. "Esaten dutenez hemen Italia duela bi aste zegoen moduan gaude". Beraz, albistegietan azaltzen dutenez Italiaren edo Espainiaren bidetik jarraituko dute. "Nik uste luzeagoa izango dela". Txinaren adibidea jarri du: "Abenduan hasi ziren kasuak eta orain, bi hilabete ondoren, neurri zorrotzak lausotzen hasi dira".

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

Asier Pazos Arbizuk INEF ikasketak egin zituen Leonen (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzia). Leongo Unibertsitateko taldean hasi zen errugbian jokatzeko. Ikasketak bukatuta, Goi Errendimenduko Masterra egin zuen, eta praktikak Ordizia Errugbi Elkartearen egin zituen. Ampo-Ordizian jokatzeko hasi zen, eta klubeko kategoria txiki-txiki talderen bat entrenatzen. Aurten, zelaia utzi eta Ordizia Errugbi Elkarte talde guztien prestatzaile fisikoa da lakuntzarrera.

Ordizia Errugbi Elkartearen guztiz aldatu da zure lana: jokalaria eta txikien entrenatzaile izatekiko klubeko prestatzaile fisikoa izatera pasatu zara.

Aurreko prestatzaile fisikoa, Josu Gomez, kanpora joan zen, eta niri eskaini zidaten bere postua. Beraz, denboraldi honetatik aurrera klubeko errendimendu saileko burua naiz, klubeko talde guztien prestatzaile fisikoa, talde nagusiarena eta gainontzekoena. Entrenamenduak diseinatu, plangintza egin eta plangintza hori aurrera eramatea, hori da nire lana. Kristoren erronka da niretzat, eta oso gustura nago. Hasieran lehen taldean ez jokatzearen pena nuen, enbidia pixka bat, baina orain beste puntu batetik ikusten dut errugbia, eta erabakia hartu izanak ez nau damutzen. Nire eginkizuna, klubean, beste rol batean dago. Barneratuta dut hori, eta asko disfrutatzen ari naiz.

Horretaz gain, Ultzamako kirol teknikaria zara. Nola uztartzen duzu guztia?

Ultzamako kirol teknikaria izateko oposaketak atera nituen eta goizez bertan egoten naiz lanean. Arratsaldean Ordizira joaten naiz. Lanpetuta nabil, alde batetik bestera egunero, baina ahal den moduan daramatzat biak.

Estatuko Ohorezko Mailan, maila nagusian aritzen den Ampo Ordizia taldearekin egingo duzu lanik gehiena, ez?

Bai, Ordizian ematen dudana denboraren %80 lehen taldearekin da. Jokalari dexente daude, plan ezberdinak dauzkate, balorazioak eta banakako jarraipena egin behar zaizkie... lana badago. Staff teknikoan Iñigo Marotias eta Aritz Garmendia dira lehen taldeko entrenatzaileak, Gorka Etxeberría fisioterapeuta, Sebastian Cruz medikua, Juanma Al-

"Honek denboraldiko plangintza apurto du"

ASIER PAZOS ARBIZU ORDIZIA ERRUGBI ELKARTEKO PRESTATZAILE FISIKOA

ERRUGBIA Jokalari izateari utzi eta Ordizia Errugbi Elkarte talde guztien prestatzaile fisikoa da Asier Pazos lakuntzarrera. Koronabirusagatik etxetik gidatzen ditu entrenamenduak



Asier Pazos etxean ariketak egiten. UTZITAKOA

danondo eta Jon Ander Aizpurua delegatuak eta ni prestatzaile fisikoa.

Ampo Ordizia sailkapenaren goialdean dago, ezta?

Bai, laugarrena da sailkapenean (58 puntu), eta VRAC Quesos Entrepinares da liderra (68 puntu). Lehen lau postuen artean estu dago sailkapena. Guk azkeneko partida duela 4 aste jokatu genuen, gero 2 asteko atsedena genuelako, eta hain justu bigarren aste horretan atera zen koronabirusa. Orain liga geldirik dago eta etxean egotea da tokatzen dena, eta ahal den moduan entrenatzea.

Berez Ohorezko Mailako Liga noiz bukatzen da?

Liga erregularreko azken jardunaldia maiatzaren 3an da jokatzeakoa, baina lehen 6 taldeak play-offak jokatzeakoa sailkatzen dira, eta gu hor egongo ginateke. Sortu den egoera honekin ez dakigu zer gertatuko den, Espainiako Federazioak zer erabakiko duen: ligako fase erregularra bukatzea, zuzenean play-offak jokatzea... esperoan gaude.

Koronabirusak guztia aldatu du. Prestatzaile fisikoa zarenez, seku-

"INDARRA LANTZEKO ETA INTENTSITATE ALTUKO ENTRENAMENDUAK PROGRAMATU DITUT"

lako lana izango duzu etxeko entrenamenduak prestatzen. Nola ari zara?

Egoera konplexua da, honek denboraldiko plangintza guztia apurto baitu. Jokalari batzuk etxean kirol materiala dute, baina beste batzuk ez, eta saiatu gara ahalik eta errezen edo material gutxiagorekin egiten den entrenamendua prestatzen. Motxila batean ahalik eta pisu gehiena sartzen, aulkiekin... entrenamendu ezberdinak osatu ditut. Egunean bi entrenamendu daukate. Goizekoa indarrera bideratua dago, eta arratsaldean intentsitate altuko entrenamendua egiten dugu. Errugbia oso kirol aldakorra da, intentsitate asko behar duena. Arratsaldean, zirkuitu ezberdinak egin behar dira eta noizbehinka, agian 10 aldiz edo, lurrera joan eta altxatu, party-ak deitzen diren ariketa horiek. Ariketa horiekin lortzen dugu intentsitatea eta pultsazioak asko igotzea. Gero kontrolatu behar ditugu; horretarako jokalariei pasatzen dizkiegu galdeketa batzuk eta beraiek erantzunak apuntatzen dituzte. Ondoren, nik hori guztia hausnartu, baloratu eta horrekin progresio bat egiten dut.

Nahiz eta etxean ariketak egin, ez da entrenamendu normal bat. Nola itzuliko dira jokalaria?

Ez dakigu, oraindik ez baitakigu zenbat luzatuko den hau, baina jokalaria bakoitza egoera batean ailegatuko dela suposatzen dut, eta pentsatzen dut indar asko izango duela lesio prebentziarako entrenamenduak. Zelaian lortzen dugun intentsitatea etxean lortzea oso zaila da, eta hainbeste aste behar den intentsitatea lortu gabe... Bueltatutakoan lehen-dabiziko gauza izango da fisioarekin eta medikuarekin bildu eta jokalaria bakoitzaren balorazio bat egitea, zein puntutan dagoen ikusteko, eta hortik aurrera plan individualizatuagoa egin beharko diet, lesioen prebentzioa lantzeko.

Kirol guztien kezka da hori, bueltako lesioak ekiditea...

Beste kirol batzuetan liga dagoen bezala uzteko erabakia hartu dute, baina guk oraindik ez dakigu. Liga ez bada eteten, denbora gutxi izango dugu prestatzeko, etxetik atera eta aste batean edo bitan partida izango dugu. Hortaz, lan dezente egingo dugu prebentzio-lesioarekin, arrisku hori gutxitzeko.

Taldea nola dago animoz? Gaixoren bat al duzue, berrogeialdian dagoen baten bat?

Errugbia kontaktu askoko kirola da, jende asko aldageletan, gauza guztiak partekatzen dira... baina zorzea izan dugu, momentuz ez dugu jokalaririk sintomekin. Eta animoz... saiatu gara jokalariek harremana eta kontaktua ez galtzeko ekimenak egiten, talde giroa ez galtzeko.

Futbol jokalariek FIFArak jokatzeko dute Play Stationean. Zuek errugbiko jokorik al duzue?

Badago jokoren bat, bai (kar, kar...). Nik denbora gutxi daukat Playra jokatzeko, egia esan. Saiatzen gara beste ekintza batzuk sustatzen. Aste honetan bideo-konferentzia bat egin genuen arlo tekniko-taktikoak lantzeko, bideo batzuk ikusi genituen, beste plataforma batzuekin 40 pertsona bildu ginen... Goi mailako kirolean bideoa eta analisia egunero lantzen da, jokoa hobetzeko, aurkariak nola jokatzeko duten jakiteko... ezinbestekoa da. Gauza da bideo horiek lan asko dutela atzetik, edizioan, bideoak jokariendako interesgarriagoak egiteko. Orain etxean gaude sartuta, eta denbora gehiago dugu halakoak prestatzeko.

Telelanarekin, lan gehiago egiten da.

Bai, oraindik ez dut aspertzeko aukerarik izan (kar, kar...). Lan asko dut, bai Ordiziko guztiarekin eta baita Ultzamako Mankomunitatekoarekin... ez naiz aspertu.

Egoera honetan behintzat taldea distantziatik zuzentzen ikasiko duzu...

Egoera guztietatik ateratzen da zerbait positiboa, eta uste dut ere hemendik zerbait aterako dugula.

Sakandar bakarra zara Ordizia Errugbi Taldean?

Behoko kategorietan bi jokalaririk sakandar ditugu, Owen Berdote urdiaindarra eta aurtan errugbia probatzera animatu den Iker Alegria lakuntzarra. Jada hiru sakandar gara Ordizian.

"BUELTAN, JOKALARI BAKOITZAREN BALORAZIO BAT EGIN BEHARKO DUGU NOLA DAUDEN IKUSTEKO"

Mankomunitateko Kirol Zerbitzua, telelanean

KIROLDEGIA Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak etxetik erantzuten ditu sakandarren kezka eta eskariak. Momentuz bertan behera gelditu dira Mank-en kirol topaketa eta ikastaroak eta etxeko itxialdian kirolari tarte bat egitea gomendatu du Gerrikagoitiak

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua martxan dago baina Amaia Gerrikagoitia kirol teknikaria etxetik ari da lanean. "Lana etxera ekarri dugu eta ahal dena etxetik egiten gabiltza, telelanean" adierazi du. Beraz, norbaitek Kirol Zerbitzuekin harremanetan jarri nahi badu, lasai asko egin dezake. "Betiko telefonoa dugu martxan (948 464 866) eta etxetik lan egiteko e-posta berria sortu dugu, baina betiko korreoak (kirolak@sakana-mank.eus) ere hona bideratzen ditu mezuek" gaineratu du teknikariak.

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuek martxan jarritako hainbat ekimen hankaz gora geratu dira. Esaterako, Sakanako Futbol Topaketak bertan behera gelditu dira egoera bere onera itzuli arte. "Seguraski ezin izango dira galdutako egunak eta partidak berreskuratuko. Ikusiko dugu noiz arte gauden egoera honetan, baina topaketak aurreikusitako moduan despedituko dira, maiatzean, ondoren garaiko jarduerak datozelako. Bestalde, apirilean Sakanako Herri Kirol Eguna ospatzekoa zen Irañetan, eta hau egun bateko jarduera denez atzeratu egin daiteke. Ikusiko dugu" zehaztu du Gerrikagoitiak.

Eskolak eta ikastaroak, bertan behera

Sakanako Harrijasotze Eskola eta Sakanako Aizkora Eskola bertan behera gelditu dira, momentuz. Martxoa hasieran hasi zen Aizkora Eskola, Etxarri Aranzan, Erdozia aizkolarien esanetara. 17 gaztek eman zuten izena eta saio pare bat egin zituzten. "Eskola maiatzaren erdialdean bukatzekoa da, baina monitoreak eta ikasleak prest badaude luzatu daiteke; baina hori aurrerago erabaki beharko dugu, noiz bueltatzen garen ikusi eta gero" azaldu du Gerrikagoitiak. Bestalde kirol egokituetako igeriketa eta musikoterapia



Sakanako Futbol Topaketetako partida bat. Momentuz, bertan behera gelditu dira.

UDAKO FUTBOL, TRIATLOI ETA ERRUGBI CAMPUSEN IZENA EMATEA ATZERATU DUGU

saioak eta fibroialgia saioak ere bertan behera geratu dira.

Kirol monitoreen lan poltsa eta proba, zabalik

Martxan jarraitzen du Mank-eko Kirol Zerbitzuek kirol monitoreak kontratatzeko deialdiak. "Bi lan poltsa ditugu Kirol Zerbitzuan. Bat orokorra da, kirol monitore euskaldunen lan poltsa. Bertan edozein pertsona aurkeztu daiteke eta zabalik dago urte osoan. Eta bestetik, Kirol Zerbitzurako lanegiten duten monitoreen artean beste lan poltsa bat ari gara egiten, Mankomunitateko kirol jardueretan lan egiteko. Horretarako proba bat gainditu behar da. Izena emateko epea luzatzea erabaki dugu, mugarik gabe, proba hauek aurtan egingo direlako. Hortaz, interesatuek euren curriculum, eskaera orria eta memoria edo merituak e-postaz

aurkez ditzakete bi lan poltsarako" nabarmendu du teknikariak.

Udako campusen izena ematea atzeratuko da

Garai honetan udako jarduerarako izena ematea zabalitzen zuen Mank-eko Kirol Zerbitzuek. Aurtan ere futbol campusa, triatloi campusa, errugbi campusa eta surf ikastaroa antolatuko ditu udan, baina izena ematea atzeratzea erabaki du Kirol Zerbitzuek, egoera konpondu arte.

Ariketa egiteko gonbitea

Etxeko itxialdi honetan kirola egitera animatu du Amaia Gerrikagoitiak. Errutinat garrantzitsuak dira, eta errutinetan ariketak sartzea garrantzitsua da. "Luzaketak, yoga pixka bat, indar ariketak, abdominalak, plantxak, core pixka bat... eta gero etxeko artean jolasak egin, sormena ere landu, zirkuitu ezberdinak sortu... ahal den gehiena mugitu. Bestalde, formakuntzarako aprobeztatu daiteke, sareetan ere asko zabalitzen ari baitira ikastaroak. Baina guztiaren ginetik gure burua zaindu behar dugu, hori da garrantzitsua" dio teknikariak.

Sakanan antolatutako proba gehiago erori dira

KIROLDEGIA Igandean Altsasun jokatu beharreko Nafar Kirol Jokoen 4. jardunaldia, bertan behera

Koronabirusarengatik alarma egoera apirilaren 12ra arte luzatu denez, epe tarte horretarako antolatuta zeuden kirol ekitaldi guztiak bertan behera geratu dira. Igandean, martxoaren 29an, Nafarroako Herri Kirol Jokoen 4. jardunaldia jokatzekoa zen Altsasun, eta hurrengo igandean, apirilaren 5ean, txapelketako final handiak erabakitzeak ziren Igantzin. Bertan behera gelditu dira bi jardunaldiak eta Nafarroako Herri Kirol Federazioak aurrerago erabakiko du txapelketa atzeratu edo behin betiko bertan behera utziko duen.

Hiru Mendi Zerrarik gabe

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta, apirilaren 4an zen abiatzekoa XIII. Hiru Mendi Zerrak, Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien Txapelketa sustatzen zuena eta Euskal Herriko Zirkuiturako ere baliagarria zena. Aipatu martxak 2019ko ibilbide onenaren Zirkuitua saria jaso zuen, baina aurtan ezingo da egin. "Hurrengo urtean gogo gehiagorekin itzuliko gara" aipatu du Andres Bengoetxeak.

Eramu Trofeoa eta Burunda Trofeoa bertan behera

Apirilaren 5ean Altsasu Kirol Elkarteak antolatutako junior mailako Eramu Trofeoa txirritularitza lasterketa jokatzekoa zen, eta apirilaren 12an Burunda Klubak antolatutako kadeteen Burunda Trofeoa lasterketa. Bi probak bertan behera gelditu dira. Aurrerago aztertuko da probak atzeratzeko aukera dagoen edo ez.

Xotak Aldi Baterako Enplegu Erregulazioa eskatu du

Bestalde, Osasuna Magna Xota taldeak Aldi Baterako Enplegu Erregulazioa eskatzeko tramiteak abian jarri ditu, langile guztiak hartuko dituen.



Herri eta auzo bakoitzean ekimen desberdinak izaten dira: emanaldiak, ekitaldiak, musika baffleatik....

Mundu bat balkoietan

Duela ia bi aste itxialdia hasi zenetik, kaleko bizitza eta giroa balkoietan eta leihoetan berpiztu da. 20:00etan osasun arloko langileen lana eskertzen da, baita bat-bateko kontzertuak, emanaldiak eta bestelako ekimenak ere ikus daitezke

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Duela ia bi aste itxialdia hasi zenetik, kaleko bizitza eta giroa balkoietan eta leihoetan berpiztu da. 20:00etan osasun arloko langileen lana eskertzen da, baita bat-bateko kontzertuak, emanaldiak eta bestelako ekimenak ere ikus daitezke

Balkoietatik eta leihoetatik agurtzera ohitu dira herritarrek. "Zer moduz?" "Bueno, hemen. Egun bat gutxiago". Egun bat gutxiago, eta, aldi berean, konfinamenduaren egutegian ezabatzen den beste egun bat gehiago. Eta dagoeneko dira... 12; martxoaren 16an hasi zen ofizialki koronabirusak sortutako osasun krisiari aurre egiteko itxialdia edo konfinamendua. Hasieran hamabost egun izan behar ziren kalera atera gabe. Martxoaren 29a gorritz markatuta egongo zen etxe askotan. Aurreko larunbatean alarma egoea eta, beraz, konfinamendua beste hamabost egunez luzatuko zela esan zuen Espainiako Gobernuak. Aste Santuko oporrak

inoiz ahaztuko diren horietakoak izango dira, apirilaren 11n amaituko baita oraingoz itxialdia.

Kaleak hutsik daude. Gehien bat arratsaldetan. Goizetan lehen-tasuneko edo oinarriko produktuak erostera ateratzen da jendea, betiere segurtasun neurriak eta distantziak mantenduz. Krisiaren erdian lanera joan behar dutenak ere badira. Hala ere, giroa desberdina dela nabaritzen da. Arratsaldetan isiltasuna nagusitzen da, eta orain arte ohar-kabea pasatu diren soinuak eta zaratak entzuten dira. Txoriek gehiago txiokatzen dutela dirudi.

Egunero 20:00etan kalearen bakea eta isiltasuna apurtzen da. Itxialdia hasi zenetik sendagileei, medikuei, erizainei eta osasun arloko langileei omenal-

**MUSIKARIEK
ARRATSALDETAN
EMANALDIK
ESKAINTZEN DITUZTE
BALKOJETATIK**

diak egiten zaie balkoietatik eta leihoetatik txalo zaparraden bidez. Osasun-langileen omenaldia, egunotan krisia aurrera eramateko beste hainbat arlotako langileenganako eskertza bihurtu da ere. Larunbatean, gainera, Altsasuko Iortia zabal-gunean DYA, Guardia Zibila eta Foruzaingoa herritarrek egiten duten omenaldi xumera gehitu ziren, sare sozialetan oso kritikatu izan den ekintza.

Balkoiak munduarekiko komunikazio kanala bihurtu dira, eta orain arte erdi ahaztuta egon badira ere, konfinamenduan etxeetako toki garrantzitsuenetariko bihurtu dira. Zorionekoak dira koronabirusaren egun hauetan balkoiak dituztenak. Itxialdiaren errutinarekin apurtzeko momentua da 20:00etako hitzordua, nahiz eta ekimena bera ere errutina edo ohitura bihurtu den. Egunean zehar Internet bidezko hamaika emanaldi, saio, ikastaro eta abar jarraitzeko aukera izan da, eta iluntzean hamabost minutu bada ere ar-

nasa hartzeko aukera dago. Eta sozializatzeko. Edo horrelako zerbait. Komunitatea egiteko aukera badago.

Omenalditik emanaldira

Ateak itxi dira, eta balkoiak ireki. Txaloen artean doinuak entzuten hasi ziren, lotsatiak hasieran, baina egunekin ere ohitura bihurtu direnak. Doinu batzuk baffleatik datoz eta 20:00ak baino lehen hasten dira, beste batzuk leihoak irekietatik pasatzen dira ia oharkabea, eta badira musika tresnak alde batera utzi ezin dituztenak ere. Kaleek bizitza berreskuratzen dute. Kaleak baino, balkoiak dira bizitzak jarraitzen duelaren erakusle.

Akordeioa, txistua, gitarra, klarineta edo tronpeta. Musikarien emanaldi xumeak "bat-batekotasunaren" kontua izan ohi dira. Iñaki Bizkai Lakuntzan bizi den akordeoilariak, esaterako, aurreko astean sare sozialetatik egiten diren challenge edo erronka bat proposatu zuen. Polka ezaguna audioz grabatu zuen, eta doinua jarraitzera gonbidatu zituen lakuntzarrak. Ondoren, sare sozialetatik koreografia bidaltzeko eskatu zien. "Egia esan, ez dut asko pentsatu. Ideia sortu zitzaidan eta egitea pentsatu nuen". Aurreko larunbatean ere, 19:00etan, emanaldi berezia proposatu zuen: balkoira atera zen eta Altsasuko auziagatik zigortutako gazteak presente izan zituen. Akordeioarekin abesti batzuk eskaini ondoren, Altsasukoen aldeko brindisa egin zuten.

"Egia esan, Aupa Etxebeste pelikulan bezala da. Etxean nago baina oporretan egongo banintz bezala". Juanjo Mintegi etxarria-

rra egun hauetan etxeko balkoira eguzkia hartzera atera ohi da. Gainera, itxialdia hasi zenetik, 18:30ak inguru, "soinua hartu eta txokoan jo beharrean balkoira atera nintzen". Egunero egiten du emanaldia. Euskal kanta zaharrak eta dantzak jotzen ditu. "Jo nuen lehenengo egunean lehenengo abestiaren ondoren isilune txiki bat egin nuen eta bigarrenarekin hasi nintzen. Pareko etxeetako leihoak irekitzen hasi ziren, gero ondokoak...". Egunero sei bat abesti jotzen ditu, eta denak berriak izaten saiatzen den arren, aste honetan kantak errepikatzen hasi beharoko zela esan du. Publikoa oso "exigentea" ez dela esan du. Baina gustura entzuten dute emanaldia. "Auzokideek esan didate agian ez direla ateratzen hotza egiten duelako, baina etxetik gustura entzuten nautela". Abestera ere ez dira ausartzen, "agian nik kantatuko banu, besteak ere hasiko lirateke". Zaletasuna auzikideen itxialdia alaitzeko erabili du etxarriarrak.

Altsasuko auzoz auzo erradiografia desberdina da. Esaterako, Intxaurren kaleko inguruetan arratsaldero aire librean sortutako diskoteka egiten dute balkoietatik. Auzokide batek baffleak balkoian jartzen ditu, eta estilo guztietako musika jartzen du. Aurrera Altsasu abestia ere jarri zuen, aurreko ostiralean 20:00etan, asteroko kontzentrazioa egingo zen unean. Altsasuko auziagatik zigortutako gazteen aldeko ekimenak ohikoak dira ere herriko beste hainbat auzotan. San Juan kalean gitarrista batek egindako emanaldian Altsasukoen aldeko abestia jo zuen. Bertan ere, egunero klarinete jole batek emanaldiak eskaintzen ditu. Bestetik, Aritz Jauregi Iriarte ere akordeioa hartu eta balkoira ateratzen da ia egunero Amandrearen inguruetan.

Elkartasuna itxialdian ere

Asteazkenean, 18:00etan, Altsasuko gazteen aldeko ekimena bultzatu zuten sare sozialen bidez. Ideia balkoietara eta leihoetara ateratzea zen, eta *Aurrera Altsasu* eta *Altsasukoak askatu* abestiak kantatzea.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Kaiolako txioak

Irribarre urduria elkartasunaz mozorroturik, garizuma betean, berpizkundeko igandearen zain etxean preso gaude guztiok. Wifi sarearen menpeko, telelanean arduraturik. Hirutasun santu berriak hartu du gure bizitza sozialaren kontrol osoa. Whatsapp, Twitter eta Instagram, bakardadetik libra gaitzan, bizi garen artean. Mundu osoa, gailu elektronikoen gatibu. Ume, maistra nahiz maixu, gazte eta irakasle sufritu, pantailei itsatsirik dira gelditu. Ikasi behar ez duenak, Netflix ere badu.

Berri esanguratsuen zain, informazio gose asezinaren tripazorriak ezin kontrolaturik gabiltza. Azken orduko albisteei so, nork zer aginduko, nola gure adimenaz hura garaituko. Alarma egoerak derrigorrituta, etxeetan konfinatuta. Isolamendu fortzatua, korrikalarien infernua. Etxe barruko espazioak funtzio anitzdun gela bilakatuta. Gure barrenean gordetako guzti horren azaleratze prozesu geldiezinean abiatuta. Isilpeko maiteleen espetxean, ezin hegan eginik hegoak ebakita.

Jakien garrantziaz jabetu gara halako batean, haiek gabe nola bizi ez dakigula, haien falta izan daitekeenik ere pentsatzen harrituta. Ospitaletan erizain eta mediku, atsedetik gabe borrokan etengabe. Heriotzaren aurrean tinko, azken arnasa emateko prest. Sinesten ere lanak, telesail amerikar batean murgildu ote garen beldurrez, ametsgaiztotik noiz esnatuko zain gaude. Gezurra dirudi baina egia da. Nork bere burua hobeto ezagutzeko bizitako esperientzia, urruneko bidaietan galdu gabe, etxean bertan. Udaberriak aurrera darrai, gure miserietaz ez du ezer jakin nahi, iritsiko da aterako garen eguna, egon lasai.

HARA ZER DIEN

Berrogeialdia espetxean

SAKANAKO SARE

Orain sentitzen ari gara benetan, etxean egotera behartuak gaudelako, "preso" egotea zer den. Eguneroko itxialdia zer den ezagutzen ari garen honetan, espetxean daudenetan jarri nahi nuke arreta. Hasteko, pozgarria eta eskertzekoa da larrialdi honek sortutako egoerak kartzeletan bizi den egoerarekiko kezka piztea zenbait jende eta eragilerengan. Bai, orain enpatia berezi bat senti dezakegu presoekiko eta beraien senitarteekiko. Ongi etorri enpatia hori. Baina, "baina" batzuk ere badaude:

Gure berrogeialdia denbora jakin batekoa da; luzatu daiteke, baina badakigu pasatuko dela. Aldiz, pertsona askorentzat "konfinamendua" bere biziaren parte handi bat

hartzen ari da. Adibide nabarmen bat: datorren astean 30 urte egingen dituzte preso Unai eta Jon Parotek, Xistor Aranburuk eta Jakes Esnalek.

Oker gaude baldin eta pentsatzen badugu gure berrogeialdiak gure bizimodua eta preso dauden herritarren bizimoduaren artean dagoen arrakala estutzen duela; guztiz kontrakoa, izan ere, konfinamenduak presoan bizimodua gurea baino are gehiago okertu du. Arrakala handitu egin da, beraz.

Gu etxean gaude konfinaturik. Gehienok, maite dugun jendearekin harremanetan. Presoei, aldiz, gehien maite duten horiekiko harremana bortizki eta ankerki moztu eta murriztu zaie. Gu, orohar, zainduko gaituztenekin gaude; presoak, ordea, tratu txarra etengabe ematen dieten egitura eta zaintzaile batzuen eskuetan daude. Gu ingurune "seguru" batean gaude, birusetik urrun, ustez. Kartzelak osasunari

kalte egiten dioten gune ankerrak dira: higiene eskasa, gaixotasun ugari... Egoera "normalizatua" ere, beldurgarria da kartzeletan dagoen hilkortasun tasa.

Guk denbora pasatzeko tresna eta aukera pila ditugu, etxean egonagatik ere: internet, Netflix, mugikorrak... Presoek ez dute halakorik. Gainera, ziegatik kanpo egiten dituzten ekintzak murriztu edota eten egin dizkiete: eskolak, kultur jarduerak eta kiroldegirako irteerak...

Hau dena ikusita, zentzuzkoa da planteatzea larrialdi egoera honek espetxe politikan bestelako erabakiak hartzea eskatzen duela. Orain arte hartu diren erabakiak kartzelak gehiago itxi eta presoak gehiago isolatu-kaltetzeko hartu dira. Beste norabide batean hartu behar dira erabakiak: kartzelak hustu eta presoan osasuna eta zaintza lehenetsiko dituen norabidean.

GUTUNA

Burgesiaren ofentsiba gelditu!

IDOIA TORRENTE

GAZTE KOORDINADORA SOZIALISTA

Osasunaren babes eta ardura bolo-bolo dabilta egunotan gure arteko elkarriketa digitaletan, hedabideetan eta saltokietako ilaretan. Bi kontzeptu horiek zuzenean omen garamatzate koronabirusaren hedapenaren testuingurutan hartutako neurriak era akritikoan onartzeraz.

Ikuspegi hori zalantzan jartzeko idatzi ditut lerrook. Mundu mailan osasun krisiari erantzuna kudeatu duten enpresari eta agintariak gizarte kapitalistaren logika ankerra agerian utzi dute: helburua aberastasuna metatzen jarraitzea da, gainerako faktoreak (milioika pertsonen lan-indarra, ekosistemen egoera...) logika horren baitan kudeatuz. Ez da bestelakoa izan osasun-krisiaren kudeaketaren kasuan: arazoaren dimentsioak izugarri handiak izan arte ez dute neurriak

hartu eta hartutako neurriak ekoizpena bermatzera mugatzen dira.

Horren aurrean, arduraz jokatzeko eta osasuna gainjartzea (1) gizarte eredu honen onuradun guztiekiko independentziaz antolatzea (2) inplikatu du. Horrek ez du esan nahi, ordea, aholkuei muzin egitea, baizik eta benetan osasun irizpideei jarraitzea eta neurri politikoak salatzea, haren benetako izaera agerian utziz. Horrek esan nahi du, halaber, informazio gaindosiz

mozorroturiko desinformazioaren aurrean egia exijitzea (3): nola eta zergatik hedatu da birusa, zein izango da bere hedapenaren irismena, eta zertarako hartzen dira gaurko eta biharko neurriak. Horrek esan nahi du sektore babesgabeen defentsa antolatzea, baina ez ordena sozialaren oreka mantentzeko, baizik eta hari aurre egiteko geure buruak indartzeko. Aurrekoa posible egiteko askatasun politikoak exijitzea (4) ezinbestekoa da, benetan osasuna gainjartzeko, bestela basakeria honen

aurrean babesgabe baikaude. Lau puntu horiek mahai-gaineratzen dituen salaketa kanpaina politikoak martxan jarri du Gazte Koordinadora Sozialistak, talde eta kolektiboek batzera dei eginez. Dei hori luzatu nahiko nuke nik ere.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira **erredakziora**. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketatzaia@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



BAZTERRETIK

ZIORDIKO LIBURUTEGIA

Beti egiteke eta astirik ez!!!

Egoera arraro honekin gure espazioa mugatu egin da eta denbora erabat handitu. Hala ere, gehienok behintzat, ez guztiok zoritxarrez, leku eroso eta atsegina dugu itxialdi hau pasatzeko. Nik beti pentsatu izan dut, eta horrela jarraitzen dut pentsatzen, egoera guztietatik gauza positiboak atera behar ditugula eta horretaz baliatu behar dugula. Hori dela eta, parada honen inguruan, nik, gogoeta bat egin dut. Ados, ezin gara etxetik atera, etxean geratu behar dugu, baina ez gara geldirik geratuko. Hainbat eta hainbat zeregin ditugu etxean. Lehenengo betebeharrak, eta gero aisialdia. Aisialdi hori bete egin behar dugu, eta nola? Liburutegian nagoenetik, orain, koronabirus arrotz honek bisitatu gaituenean, ohartu naiz zein garrantzitsua den herritar askorentzat irakurtzea. Jatekoa balitz bezala eskatu didate, telefonoz, askok, libururen bat beraien atarian uzteko. Beraientzat, liburua, altxor bilakatu da denbora luze hori hobeto igarotzeko. Horregatik, pozik nago! Liburuak funtzio ikaragarria betetzen duela

konturatu naiz, eta ni, saiatzen ari naiz zerbitzu hori itxialdi osoan ematen. Hori bai, segurtasun neurriak oso ongi beteaz, noski!

Beti korrikan, presaka, orain ezin dut... Gure bizitzan generaman erritmoa ETEN egin da eta ondorioz, orain arte egin ez duguna egitea gomendatzen dizuet, alegia, liburuzain baten azaletik, irakurri ez dugun hori irakurtzea. Bizitza-erritmo izugarri hori eten ondoren, aprobeztatu eta egin orain arte egiteke dituzuen gauza horiek. Atxagaren liburu potolo hura, ala Sarrionaindiaren zail hura. Castillo Suarezen poesia ala Karmele Jaioren azkenekoak, Jon Arretxeren edozein eta gaztelaniaz Ken Folleten "Los pilares de la tierra" edo Julia Navaroren "Dime quien soy". Alegia, beti denbora faltagatik irakurri ez duzuen hori, orain duzue aukera paregabea irakurtzeko. Eta zer esanik ez, pelikulekin! Ez daukagu aitzakiarik nekatuta gaudelako edo denborarik ez dudalako, beti ikusteko genuen saritutako filma hori ikusteko.


Beraz, badakizue! Geratu etxean eta liburu bat IRAKURRI!!!

Nanoipuina aurkezteko data berria

Apirilaren 30era arte luzatu dute euskalduntzen ari den sakandarrrendako eta Mintzakide programako parte-hartzaileendako zuzendutako literatur lehiaketa. Hiru maila daude: 1. maila A1 eta A2 mailako ikasleena; 2. maila B1 mailako ikasleena, eta 3. maila B2 eta C1 mailako ikasleena. Mintzakide programako parte hartzaileek ezagutzaren

pareko mailan hartuko dute. Nanoipuin lehiaketaren saridunek liburu-dendetan 150 euroko txartel bana jasoko dute. Lanak originalak eta aurrez argitaratu eta saritu gabeak izan behar dira. Euskaraz sortuak izango dira. Ez dira indarkeria, sexismoa, arrazakeria edo bestelako esku-bide urraketak sustatzen dituzten lanak onartuko. Gutxienez 100 hitz izango dituzte lanek eta gehienez 150. Lanak internet bidez bidaliko dira: euskara@sakana-mank.eus.

Covid-19 KORONABIRUSA



PREBENTZIOA



GARBITU BETI ESQUAK



ETXEAN GELDITU



MASKARA ERABILI POSITIBOA EMANEZ GERO

ZORION AGURRAK



Garazi eta Alaitzentzat
Zorionak zuen urtebetetzeetan. Ongi segi eta eutsi goiari! Maite zaituztegu



ZORIONAK Antonio eta Arturo
Etxean egonagatik ere ederki ospatuko dugu zuen eguna Zaindu eta besarkada handi bat



DUELA 25 URTE...



Igerilekurako bidea egiten Etxarrin

Trenbide pasabidetik igerilekura arteko bidea berritzeko lanak egiten ari ziren. Egitasmoak bi bide aurreikusi zituen ibilgailuendako ezkerrekoa eta oinezkoendako eskuinekoa. Bi bideak landare-hesi batez banatuko zen. Basopokalen dauden etxebizitzetako etxarriarrendako eta ondoko lantegiendako erosoagoa bihurtu zen handik ibiltzea. Baita beheko basora edo Danbolintxuloko igerilekura joan zirendako ere.

EGURALDIA

Ostirala, 27



Min. **0°** Max. **13°**

Larunbata, 28



Min. **2°** Max. **16°**

Igandea, 29



Min. **2°** Max. **11°**

Astelehena, 30



Min. **-1°** Max. **5°**

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarr.com • www.dekovenavarr.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



Francisco Uriz Arteaga

'Pakito'

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Larrañaga-Arano eta Zeberio-Arraras familiak

Bakaiku

OROIGARRIA



Jesus Marin Gorriti

I. urteurrena

(Uharte Arakilen hil zen 2019ko martxoaren 27an)



Gure ondotik joan zara, baina, ez gure bihotzetatik

Etxekoak

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ERRENTAN EMAN

Altsasun dugun bulegoa beste autonomo batzuekin partekatze prest dugu. Interesa baduzu jarri gurekin kontaktuan. Andoni 603 417 554

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAERA

Altsasun, asteburutan, jende heldua zaintzeko emakume batek bere burua eskaintzen du. Interesatuak deitu 651 472 721 tfnora.

LEHIAKETAK

"Erdialde" euskarazko idazlan laburren 13. lehiaketa: Lanak aurkezteko epea 2020ko apirilaren 28an amaitzen da Miranda de Argako Tudelana kaleko 3.zbkiko egoitzan edo euskararenlagunak@gmail helbidean. Oinarriak <http://euskararenlagunak.wordpress.com> helbidean.

Baiona Iruñea Maiatzaldia: Maiatzaldizkariak aipatu jardunaldietara testuak bidaltzeko epea zabaldu du, apirilaren 19ra artekoa da. Aurtengo Maiatzaldiaren lelo nagusia BIZIMINAREN KOLOREAK (Euskal Literaturan) da. Prosaz: 2700 karaktere espazioekin gehienez. Poesiaz: 42 lerro gehienez. Maiatzek jasotako testuen zati aukeratuekin argazki muntaketa bat egingen du Maiatzaldiaren egunetan proiektu-

tatzeko, bai Baionan, bai Iruñean ere. Testu osoak udazkeneko Maiatzaldizkarian argitaratu litezke.

12. elkar ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa martxan da: 4 urtetik 16 urtera bitarteko haur eta gazteek parte hartu dezakete. Sari ederrez gain, ikastetxei zuzendutako opari bereziak izango dira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 17a arte izango da. Informazio gehiago www.elkar.eus-en, lehiaketa@elkar.eus helbidera idatzita edo 943 310 301 tfnora deituta.

OHARRAK

Elkartasun Sareak: koronabirusak eragindako osun-krisialdiari aurre egiteko Elkartasun Sareak eratu dira herrietan. Haiekin harremanetan jartzeko moduak dituzu hurrengoak. Irurtzun, udaletxeko bulego ordutegian 948 500 051 telefonoa, eta hortik kanpo 618 636 199. Etxarri Aranazko elkartasun sarearekin harremanetan jartzeko hots egin 673 319 557 edo 671 603 012 telefonoetara. Bakaikun laguntza behar izanez gero 622 268 161 da markatu beharreko telefonoa eta botiketarako 948 563 450 edo Whatsapp bidez 657 702 178. Azkenik, Altsasuko elkartasun sarearekin harremanetan jartzeko 640 044 424 telefonora hots egin edo altsasukogazteaslanblada@

gmail.com e-postara idatzi daiteke.

Arakildar guztientzako yoga klaseak: Arakilgo Udalak WhatsApp bidez 12 herrietako profiletan yoga bideoak zabaltzea erabaki du. Astelehene-ta eta ostegunetan izas-kunen bideoa 18:30ean eta Argimlutakena astearteetan eta ostiraletan 10:30ean.

Uharte Arakilgo 2020ko egur epaia: Interesa duenak 35 euro ordaindu behar ditu udaletxean, izena ematerakoan, 2020ko martxoaren 2tik 31ra bitartean. Loteen esleipena, ekainean izango da zozketa publikoaren bidez. Argibide gehiago Uharte Arakilgo udaletxean.

Gazte Karnetaren 30. urteurrena dela eta Nafarroako Gobernuak hura duten gazteei Nazioarteko Aterpekie Txartela oparitzen ari die. Azken horrek munduko 4.000 aterpe baino gehiagotarako sarbidea ematen du. Horretaz aparte, makina bat deskontu eta gazte-mugikortasun programetarako sarbidea ematen du ere. Nazioarteko Aterpekie Txartela oparitan jaso nahi duenak www.juventudnavarra.es/eu/ hasiera web gunearen bidez egin dezake eskaera.

www.iragarkilaburak.eus

OROIGARRIA

Jose Luis Betelu Azpiroz

I. urteurrena

Nahiz eta sarritan ez ikusi, eguzkia egunero ateratzen da Gurekin zaude

Elanekuek

2020ko martxoaren 27an, Lakuntzan

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

- **Zuhaitz Gamboa Goñi**, martxoaren 13an Etxarri Aranatzan

HERIOTZAK

- **Francisco Uriz Arteaga**, martxoaren 22an Bakaikun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

OROIGARRIA



Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea

III. urteurrena

Ahazten denean bakarrik hiltzen da, eta guk ez zaitugu inoiz ahaztuko

Etxekoak



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zehinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

11 GALDERA



Ines Moreno Sanchez, behean ezkerretik bigarrena, Erasmuseko lagun taldearekin, Olomocen. UTZITAKOA

"Erabaki genuen itzultzea zela hoberena"

Ines Moreno Sanchez Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduako ikaslea da. Olomouc Txekiar Errepublikako hirian zegoen Erasmusean, baina koronabirusak sortutako osasun krisiagatik Altsasura itzuli behar izan zuen

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Noiz joan zinen Txekiar eta noiz arte zienen egotekoa?

2019ko irailaren 14an joan nintzen, eta klaseak maiatzaren 7an bukatzen ziren, baina nire Erasmus ekainera arte zen. Ikasturte osorako joan nintzen.

2 Zer moduzko esperientzia izaten ari zen?

Primerakoa. Hasieran dena berria zen, errutina berriak eta pixka bat zaila egiten da. Baina nire kasuan, hasieratik jendea oso jatorra izan da, eta oso azkar ohitu nintzen.

Oso-osogustura egon naiz. Bigarren lauhileko honetan hobeki.

3 Baina bat-batean itzuli zara. Nola jakin zenuen itzuli egin beharko zenuela?

Bai. Martxoaren 13an, ostirala, bueltatu behar izan nintzen. Aurke egunetan Txekian ia ez zegoen kasurik. Gu lasai geunden. Twitterren hemengo egoerari buruz irakurtzen genuen, eta gurasoek ere kontaktzen ziguten. Baina Erasmuseko jendea elkarrekin geunden eta, egia esan, hasiera barrez hartu genuen. Astelehen horretan gauza serio jartzen ari zela kontu-

ratu ginen. Batzuk hasieratik larritu ziren, eta beste batzuk pixka bat itxoitea erabaki genuen ea unibertsitateak zer esaten zigen jakin arte. Baina gauza larritzen joan zen. Madril oso gaizki zegoela ikusi genuen. Justu hurrengo astean lagun bat bisitan etorri behar zen, eta lehenengo sustoa izan nuen ez zela joango jakin nuen. Nik ez nuen inolaz ere pentsatzen itzuli beharko nuenik. Ostegunean enbajadaren mezu bat jaso genuen esanez mugak itxiko zituztela eta Larrialdi Egoera ezarriko zutelako. Ostiraleko 00:00ak baino lehen ateratzen ez baginen,

ezingo genuela denboraldi batean herrialdeetik atera. Erabaki genuen itzultzea zela hoberena.

4 Baina kasu gutxi zeuden, ez?

Bai. Ni itzuli nintzenean 70 bat zeuden. Esan didatenagatik orain (astelehenean) 1000 kasu daude, baina hildako gutxi, 10 pertsona. Txekia Espainiako Estatua baino askoz hobeto dago.

5 Neurriak hartu zituzten edo aurreikusi ziren?

Bai, hasieratik. Buelatu aurretik klaseak kendu zizkiguten, hemen baino lehenago, kasu gutxiago egonda ere. Bertan daudenek kontatu digutenez, ikasle egoitzatik erosketak egitera atera daitezke bakarrik, maskararekin beti, eta logela bakoitzean bi pertsona egoetik bat egotera pasa dira.

6 Beraz, itxita egoteko, hobe etxean familiarekin, ez?

Bertan dauden bideoak ikusten ditut eta bueno... baina, bai, lasaiago etxean. Familiarendako ere lasaiago etxean egotea.

7 Nolako izan zen bidaiak? Zailtasunak izan zenituzten?

Hiru pertsona batera itzuli ginen. Hegaldia erosteko arazorik ez genuen izan, eta hegazkina pixka bat atzeratu zen, baina dena normal joan zen. Bartzelonara joan behar izan genuen, Bilbora joateko eskalak egin behar genituelako, eta hainbat herrialdetan Espainolei ez zitelako sartzen uzten. Beraz, Bartzelonara iritsi ginen eta gurasoak bila joan ziren. Baina arazorik ez, lasai joan ginen.

8 Gurasoek zer esaten zuten?

Erabakia hasieratik errespetatu zuten. Etorri baino lehen

hango eta hemengo koordinatzaileekin hitz egin nahi nuela esan nien, dena argi uzteko. Baietz esan zidaten. Beste alde batetik bueltatzea nahi zuten.

9 Koordinatzaileek zer gomen-datu zizuten?

Ezzidaten laguntza askorik eman, egia esan, Hangoek gelditzeko esaten ziguten. Txekia Espainia baino hobeki zegoela eta lasai egoteko. Gasteizkoek hasiera ez ziguten erantzunik eman ere, gero larritzen ari zela ikusi zutenean bai. Baina azkenengo momentuan.

10 Unibertsitateak itxita, Altsasun zaude... Akademikoki zein egoeratan zaude?

Hasieratik hango unibertsitateak esan ziguten arazorik ez zela egongo. Gu bertan matrikulatuta gaude, eta klaseak online izango genituela. Beraz, hori ez izateko etxera itzultzeko arazo bat. Ez ditugu klase asko izan eta lanak ere online egiten ditugu. Ez dakigu bueltatuko garen edo ez, espero dut baiez, baina ikasturtea hango unibertsitatean bukatuko dut.

11 Hemengo eta hango unibertsitate sistemen desberdintasunak?

Hangoa asko gustatu zait. Ikusi dudana aldea izan da irakasgaiak askoz praktikoagoak direla. Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako graduak hemen kritika nahiko ditu teorikoezia delako. Eta han, aldiz, praktikoa egiten dugu ia dena. Adibidez, irakasgai bat itsuendako jarduera fisikoa zen eta han beti praktika egiten genuen. Hemen oso teorikoa da. Nik uste esperientzia gehiago sentitzen duzula, eta hobe da.



UDAL
BULETINAK
 ez galdu aukera
Eskatu aurrekontua



948 564 275
 INFO@GKOMUNIKAZIOA.EUS